

GARDENTASUNAREN EGOERA

GASTEIZKO UDALAREN PUBLIZITATE AKTIBOAREN ETA INFORMAZIO
PUBLIKORAKO SARBIDEAREN INGURUKO BETEBEHARREN
BETETZE-MAILARI BURUZKO TXOSTENA - 2018KO EKITALDIA

GARDENTASUNAREN ETA EDUKIEN ATALA
2019KO APIRILA





AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3. or.
1.1 Lege eta arau-esparrua.....	3. or.
1.2 Dokumentu hau dela eta	3. or.
2. Publizitate aktiboa	5. or.
2.1 Oinarri orokorrak	5. or.
2.2 Gardentasun atariko orri nagusia	6. or.
2.3 Legearen betebeharrei buruzko analisia	7. or.
2.3.1 Erakundeari, antolakuntzari eta planifikazioari buruzko informazioa.....	8. or.
2.3.2 Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa	10. or.
2.3.3 Ekonomiari, aurrekontuari eta estatistikari buruzko informazioa	11. or.
2.3.4 Langileei buruzko informazioa	15. or.
2.3.5 Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa	15. or.
2.3.6 Beste zenbait alderdi.....	16. or.
2.4 Erakunde autonomoak eta udal enpresak.....	18. or.
3. Informazio publikoa eskuaratzea.....	19. or.
3.1 Lege esparrua eta prozedura	19. or.
3.2 Estatistikak.....	20. or.
4. Gardentasun atarira egindako bisitak.....	21. or.
5. Ondorioak	23. or.
6. Eranskin grafikoa: betetze maila	26. or.



Sarrera

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 66. artikulua betetze aldera aurkezten da **Gasteizko Udalaren publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharren betetze-mailari buruzko txosten hau**, 2018ari dagokiona.

Aldi berean, Udalak 2018ko ekitaldian antolakundearen barruan **gardentasunaren kultura** sustatzeko eta **gobernu irekia** garatzeko bideratu dituen jardueren oroitidazkia da txostena.

1.1 Lege- eta arau-esparrua

Oinarrizko bi arauk xedatzen dituzte dokumentu honek aipatzen dituen **betebeharrak** — gardentasunari lotuta daudelarik Udalari aplikatzekoak zaizkion beste legegintza-ingurune batzuetan agertzen direnak bazter utzi gabe— :

- **19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa** (2013ko abenduaren 10eko BOE, 295. zk).
- **2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa** (2016ko apirilaren 14ko EHAA, 70. zk.)

Sailen, erakunde autonomoen eta udal enpresen arteko beharrezko koordinazio-lana egiteko, Gasteizko Udalak Herritarrentzako Arretaren eta Gardentasunaren Zerbitzuaren barnean dagoen Gardentasunaren eta Edukien Atalari esleitu dizkio zeregin horiek, efizientziari eta gastu publikoaren aurrezkiari lotutako irizpideetan oinarrituz. Horrenbestez, aipatutako atalak egin du txostena.

1.2 Txosten honi buruz

Publizitate aktiboaren beharra zehazten duten bi legeetako **alderdi** nagusiak aurkezten dira, **atalez atal**.

Jarraitu den eskema izan da **legeen betebeharrak** adieraztea (nahitaez bete beharreko gutxieneko gisa hartu behar direnak).

Ez da bereizten, hobeto ulertzeko beharrezkoa denean salbu, zein betekizun den 19/2013 Legeak eskatutakoa edo zein 2/2016 Legeak, 19/2013 Legea organikoa ez denez hierarkia-maila argirik ez dagoelako. Aitzitik, euskal legea udal-antolamenduari dagozkion gaietan zehatzagoa denez gero, lehenetsi egin dira hark erabiltzen dituen definizioak; gainera, ez dago 19/2013 Legeak eskatzen duen publizitate aktiboko ia betebeharrak bakar bat ere euskal legeak eskatzen ez duenik termino berdinetan edota termino osatuago edo zehatzagoetan.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Betebehar horiek **termino kuantitatiboetan eman arren** (eta informaziorako eranskin grafiko batean islatuta), **alderdi kualitatibo handia dute**, datuak eta informazioa emateaz gain, horiek ulergarriak eta argiak izan behar baitute, eta modu eguneratua agertu.

2018ko balantzean nabarmendu beharra dago Gasteizko Udalak urrats garrantzitsuak egin dituela ematen duen informazioak haren kudeaketaren irudi objektibo eta eguneratua erakuts dezan. Ildo horretatik, lau proiektu garatu dira gobernu irekiaren alorrean, zeinak txosten honetan jaso baitira halaber. Hauek dira, zehazki:

- Udal aurrekontuari buruzko <http://noradoaznirezergak.vitoria-gasteiz.org> **plataforma grafiko eta interaktiboa** sortzea, informazioa herritarren hizkeran eta modu erakargarrian eskaintzeko.
- **2015-2019 Gobernu Planaren kontu emateko plataforma** (www.vitoria-gasteiz.org/kontu-ematea), zeinean egiaztatu ahal baita gobernu-taldeak amaitzean den agintaldi honetarako hartutako konpromisoen aurrerabide- eta betetze-maila.
- **Udal zerbitzuen katalogoaren** lehen fasea, udal osoaren barruan egindakoa, erakundeak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen ezaugarriak zehazteko.
- **Kode etikoa** garatzea, helburu hauekin: udal esparruan garrantzirik handiena ematen zaien eta praktikara eraman beharrekotzat jotzen diren balioak sustatzea; urra daitezen galaraztea, eta erabakiak hartzeko orduan —beren artean gatazkan sartzen direnean— lehentasunak nola ezarri argudiatzea.

Proiektu horietaz gain beste hauek aipa daitezke:

- **Bideoakten sistema**, zeinak 2018ko martxoaz geroztik aukera ematen baitu osoko bilkurez gain batzordeak streaming bidez ikusteko eta saio horien bideoak eskuratzeko.
- **Komunikazio argiaren** proiektua, administrazioaren eraginkortasuna handitzeko xedea duena, herritarrentzat garrantzia duen informazioa era erraz, zuzen eta argian helaraziz.

Aipatzekoa da, bestetik, proiektu horiek garatzeko **udal antolakuntza** osoaren inplikazioa behar dela, barne kultura aldatzea eta herritarrekin beste modu batean erlazionatzea baitakarte.



Publizitate aktiboa

2.1 Printzipio orokorrak

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5. artikulua ezartzen ditu legeak behartutako subjektuen **publizitate aktiboa arautu behar duten printzipio orokorrak**; Gasteizko Udala behartutako subjektu horien artean dago. Printzipio horien arabera, gardentasun-betebeharren mendeko informazioa:

- **Aldizka eta eguneratuta** argitaratuko da.
- **Dagozkion egoitza elektroniko edo web-orrietan** argitaratuko da.
- **Argi, era antolatuan eta ulertzeko moduan** argitaratuko da eta, ahal bada, **formatu berrerabilgarrietan**.

Legeak adierazten duenez, bitartekoak ezarriko dira **argitaratutako informazioa eskuragarria, kalitatezkoa eta elkar eragiteko eta berrerabiltzeko modukoa** izan dadin, baita informazio hori identifikatu eta lokalizatzeko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko **2/2016 Legeak**, bestalde, **zorrotz** arautzen ditu toki erakundeen publizitate aktiboko betebeharrak, eta eremu materialen arabera xehatzen ditu.

50. artikuluko "printzipio orokorrak" atalean, euskal legeak honakoa gehitzen die lehenetik aipatu diren irisgarritasun- eta berrerabilgarritasun-printzipioei: bermatu egingo da "toki-administrazioen dokumentu eta euskarrietan **ez** dela hizkuntzaren **erabilera sexistarik** egiten", eta **euskararen erabileraren normalizazioari** buruzko legeria beteko dela, arreta berezia emanez toki-erakundeen publizitate aktiboan euskararen erabilera sustatzeari.

Orobat, informazioak "**egiazkoa, erraz eskuratzeko modukoa, bereizkeriarik egiten ez duena, argia, erraza eta zehatza**" izan beharko du. Legeak zehazten du, halaber, **berariaz erabiliko** direla **bideoak, grafikoak, argazkiak eta marrazkiak** orriak edo dokumentu-euskarriak osatzean, baita ematen den informazioaren nondik norakoak hobeto ulertzen laguntzen duten bestelako konposizio bideak ere. Areago, 50. artikulua 6. puntuak zehazten duenez, **adierazpen grafikoak "nahitaez erabili" beharko dira izaera ekonomiko-finantzarioa duen edozein informazioaren kasuan**.

Horrenbestez, publizitate aktiboaren betebeharren mende dagoen informazioak ezaugarri hauek izan behar ditu: **eskuragarria, kalitatekoa, egiazkoa, eguneratua, argia, egituratua eta laburra izatea; grafikoz, irudiz edo argazkiz lagunduta joatea beharrezkoa denean, eta berrerabiltzeko eta elkar eragiteko moduko formatuetan ematea datu gordinak direnean**. Gainera, **hizkuntzaren erabilera ez sexista lehenetsi behar du informazioak, eta euskararen erabilerari buruzko legedia bete**.



Printzipio horiek betetzeari dagokionez:

- Udalaren webguneak W3C partzuergoaren Web Accesibility Initiative (WAI) lan-taldeak landutako **WCAG 2.0 arauen AA mailarako definitutako jarraibideak betetzen ditu**; era berean, nazioarteko hainbat estandar teknologiko betetzen ditu, eta informazioaren irisgarritasuna bermatzen duten software-laguntza teknikoak erabiltzen. Gardentasun-ataria (www.vitoria-gasteiz.org/gardentasuna) da publizitate aktiboaren alorrean eskatzen den **informaziorako sarbidea emateko gune nagusia**, eta udalaren webgunearen barruan izanik, irisgarritasun-ezaugarri berak betetzen ditu.

- Webgunean **herritarren eskura jartzen den informazioa formatu elebidunean dago**, era-kundeak nahitaez bete beharreko indizea gainditzen duen proportzioan, eta html edukien kasuan, ia % 95era iristen da portzentajea. Gauza bera esan daiteke **hizkuntzaren erabilera ez sexistarekin** lotuta ezarritako irizpidez eta **Udalaren zeharkako planek ezarritako beste irizpide** batzuez —esaterako, edukiei bizikidetzeta eta aniztasunarekin lotutako irizpideak ere aplikatzen zaizkie—.

- Informazioaren egiazkotasun, gaurkotasun, argitasun eta abarrei dagokienez, **informazioa ezagutu bezain azkar eguneratzen da**; zabaltzen diren datuak **egiazkoak eta zehatzak** dira, eta ahaleginak egiten jarraitzen dugu informazioaren hartzailleentzat ulertzeko zailak izan daitezkeela jotzen diren edukiak argiagoak eta herritarren ikuspegitik hurbilagoak izan daitezen. Berrerabilerrari eta elkarrengarritasunari dagokionez, gero eta datu gehiago argitaratzen da Open Data atarian, geroago aipatuko dugun bezala.

Txosten honetan, Udalak dituen publizitate aktiborako betebeharrak nola betetzen diren adierazten dugun heinean, printzipio orokor horiek zein puntutan betetzen diren ere adieraziko dugu.

2.2 Gardentasun atariko orri nagusia

2017. urteari buruzko txostenaren 6. orrialdean hau aipatzen zen: "2018an bi plataformak [Gardentasun-ataria eta Open Data ataria] bere baitan hartuko dituen atari bat jarriko da martxan. Orain abiatzear edo abiatu berri diren beste zenbait ere hartuko ditu barne".

Hain zuzen ere, dagoeneko aipatu ditugu azken horiek: **Kontu emateko plataforma** —2018ko martxoaren 13an hasi zen funtzionatzen— eta udal aurrekontua grafikoki ikusteko: **Nora doaz nire zergak** plataforma —Ogasun Sailaren eta Herritarrentzako Arretaren eta Gardentasunaren Zerbitzuaren arteko lankidetzeta ahalegin handiaren ondoren, 2019ko martxoaren 9an argitaratu da.

Beste atariak barne hartzen dituen ataria ere, [Gardentasun eta gobernu irekiaren ataria](#), erabilgarri dago online, eta datozen asteetan nabigazio-menuaren alderdi batzuk aldatu eta erraztuko dira, ikusgarritasuna emateko. **Gasteizen gobernu irekiari buruzko webgune propioa** osatzeko urratsa da, gardentasunarekin, partaidetzarekin eta udalaren informazio publikorako sarbidearekin lotutako informazioa sakon berrikustea ahalbidetuko duena.



Aldaketa horiek Gardentasun-atariaren orrialde nagusia moldatzea ekarriko dute, eta baliteke aldaketok 2018an egindakoak baino sakonagoak izatea; ekitaldi horretan osagai grafiko berriak sartu dira lehen orrialdean, eta epigrafe nagusiak lau ataletan birbanatu dira:

- **Udalaren antolakuntza**
 - Udalaren antolakuntza politikoa: gobernu-organoei buruzko informazioa, bilkuren gai-zerrendak eta aktak. Kargu hautetsiei eta behin behineko langileei buruzko informazioa (ordainsariak, ondasun aitortpena...).
 - Administrazio-antolakuntza: organigramak (orokorra eta sailez sail); langileei buruzko informazioa (Lanpostu Zerrenda, ordainsarien taulak, sindikatuen ordezkariak...), udalaren lan eskaintza (deialdiak, proba ereduak...).
- **Herritarrekiko harremanak**
 - Herritarrekiko harremanak: udal zerbitzu eta ekipamenduen katalogoa, udal webguneak, herritarrek parte hartzeko prozesuak eta organoak, herritarrentzako arreta (bulegoak, izapideak...). Informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruzko informazioa.
 - Herritarren intereseko esparruak: udal politika hainbat esparrutan, hala nola ingurumena, mugikortasuna, obrak, hirigintza, kultura eta kirola... Udal Plan Estrategikoari eta zeharkako planei buruzko informazioa.
- **Ekonomiarekin eta araudiekin lotutako informazioa**
 - Ekonomiarekin eta finantzazioarekin lotutako informazioa: aurrekontua (informazioarako sarbidea datu irekiak emanez), kontratazio publikoa, dirulaguntzak, hitzarmenak, ondarea, adierazle ekonomikoak, alkatearen gastuak...
 - Udal araudiak: udal araudiak (indarrean daudenak eta indarrean ez daudenak) gai eta tipologiaren arabera, erregelamenduak, aginduak, dekretuak...
- **Informazio publikoa eskuratzea**
 - Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: tramitea, estatistikak...
 - Udalaren Gardentasun Kontseilua: urteko irizpenak.
 - Datu irekien ataria.

"Azken albisteak" espazioan, berriz, atarian egindako azken eguneratze garrantzitsuenak jasotzen dira. 2018an 65 albiste zabaldu dira (2017an baino 10 gutxiago).

2.3 Legearen betebeharrei buruzko analisia

Sei ataletan banatu dira:

- 2.3.1 Erakundeari, antolakuntzari eta planifikazioari buruzko informazioa.
- 2.3.2 Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa.
- 2.3.3 Informazio ekonomikoa, aurrekontuen ingurukoa eta estatistikoa.
- 2.3.4 Langileei buruzko informazioa.



2.3.5 Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa.

2.3.6 Beste zenbait alderdi.

2.3.1 Erakundeari, antolakuntzari eta planifikazioari buruzko informazioa.

19/2013 Legearen 6. artikulua eta 2/2016 Legearen 52. artikulua arabera

Eskatutako informazioa:

1. Toki-erakundearen organoak, beharrezkoak eta osagarriak, honako hauek adierazita: haien titularrak (osaera), eta eginkizunak.
2. Aplikagarri zaizkion arauak.
3. Organo bakoitzaren gai-zerrendak, eta hartzen dituzten erabakiak.
4. Erakundean eta haren gobernu-taldeetan ardura politiko gorena duten pertsonei buruzko informazioa, curriculumeko datuak barne.
5. Alkatearen eta zinegotzien arduraldi-araubidea.
6. Antolakuntza-egitura eguneratua: organo desberdinetako arduradunak biltzen dituen organigrama, berariaz aipatuz zuzendaritzako edo erantzukizuneko lanpostuak, lanpostu horiek betetzeko zer profil behar den eta lanpostu horiek betetzen dituztenek zer ibilbide profesional daukaten.
7. Toki-ordezkarrien ondasun eta jardueri buruzko urteroko aitorpenak.
8. Behin-behinekoak diren lanpostuen zerrenda.
9. Gobernu-plana, agintaldiko plana edo jarduera-plana. Aldian-aldian, horien betetze-maila.
10. Urteko eta urte anitzeko plan eta programak (xede zehatzak, eta horiek gauzatzeko aurreikusitako jarduerak, baliabideak eta epea). Xede horien gauzatzeko mailaren aldizkako ebaluazio eta argitalpena.
11. Udaleko alderdi politikoei buruzko informazioa.
12. Aholku-organoak eta gizarte-partaidetzakoak, haien jarduera eta erabakiak barne.
13. Edonolako erakunde instrumentalak; arduradun gorenak zein diren eta haien antolamendu-egitura zer-nolakoa den ere adierazi beharko da.
14. Toki-erakundeek datu hauek argitaratuko dituzte beren web-orri instituzionaletan eta informazio orokorreko gainerako medio propioetan: posta-helbidea, helbide elektronikoa, erakundeak herritarrentzat dituen irispide orokorreko telefono-zenbakiak, eta kargu hautetsiekin eta zuzendaritza-karguekin komunikatzeko moduak.
15. Halaber, ezagutzera emango da zein kanaletatik eskaintzen diren herritarren arretarako zerbitzuak eta zein kanaletatik gauzatu daitekeen herritarren parte-hartzea.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Kapitulu honetako betebeharreri erantzuteko, Gasteizko Udalaren gardentasun-atariak bi atal ditu: [Udalaren antolakuntza politikoa](#) eta [Administrazio-antolakuntza](#), "Udalaren antolakuntza" izenburuaren pean.

Antolakuntza politikoa

- [Udalaren identifikazio eta harremanetarako datuak](#)
- [Udalaren antolakuntza politikoaren egitura osoa](#)
- [Gobernu organoak](#)
 - [Udalbatza: zinegotziak](#)
 - [Tokiko Gobernu Batzarra](#)
 - [Bilkuren gai-zerrendak eta aktak](#)
 - [Udalbatzaren bilkuren emanaldiak](#)
- [Udal talde politikoak](#)
- [Goi karguak eta politikariek izendatutako langileak](#)
 - [Behin-behineko langileen, kargu hautetsien eta zuzendaritza-organoen ordainsariak](#)
 - [Goi karguen Jarduera eta Ondasunen Erregistroa](#)
- [Aholkularitza juridikoa emateko organoen eta kontu-hartzailearen barne txostenak](#)

Administrazio-antolakuntza

- [Udalaren antolakuntza politikoaren egitura osoa](#)
 - Udal egitura aldatzeari buruzko azken dekretua: [2017/02/08](#) (pdf)
 - [Organigrama orokorra](#) (pdf, azken eguneratzea: 2017/02/08)
 - [Organigrama, sailez sail](#) (pdf, azken berrikuspena: 2017/02/08)
- [Udal bulegoen kokalekua](#)
- [Udal langileak](#): ordainsarien taulak, sindikatuen ordezkartza, datu estatistikoak...
 - [Lanpostuen zerrenda](#)
 - [Udalaren enplegu-eskaintza](#)
- [Udalari eragiten dioten ebazpen judizialak, eduki osoarekiko estekarekin](#) (administrazioarekiko auziak, lan arlokoak edo beste izan), baita [udal enpresei](#) dagozkienak ere.

Aurretik aipatutako 15 puntuetan eskatutako informazio gehiena jasotzen da bi atal horietan; 15. puntuari dagokiona, berriz, "Herritarrekiko harremanak" atalean ematen da. Txostena egiteko



unean, datuak eguneratuta daude funtsezko alderdiei dagokienez. Hala ere, zenbait balorazio egin behar dira, zeinak iazko txostenean ere jasotakoan ildokoak baitira:

- Alkatearen eta zinegotzien **dedikazio erregimena** (5. atala). Informazio hori **bi artxibo erantsitan ematen da, ohar gisa**: aurreko ekitaldiko ordainsari gordina eta indarrean dagoen ekitaldiko hileko ordainsari gordina. Datu horiek **modu ikusgarri eta eskuragarriagoan agertu beharko lukete**, bila ari denak erraz aurkitzerik izan dezan.
- 6. puntuak (**antolakuntza-egitura eguneratua**), **lehen bezala, ez da informaziorik ematen lanpostu horiek betetzeko eskatzen den profilaria buruz**, ezta horiek betetzen dituzten pertsonen ibilbide profesionalari buruz ere (bada kargu hautetsien curriculumari buruzko informazioa, baina ez izendapenezko kargudunena). Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko **2/2016 Legeak** 52.h) artikuluan ezarritako betekizuna da informazio hori ematea.
- 9. eta 10. puntuak (**gobernu-planak eta urteko eta urte anitzeko planak eta programak**) ez daude bilduta Gardentasun-atariaren epigrafe honetan, baizik eta **Herritarrekiko harremanak** izenekoan, non legealdirako planarekiko lotura dagoen (legealdirako planetik plan eta programetara sartzen da). **Legaldi-planak**, gainera, berriazko lotura du webguneko menu nagusiko “Tramiteak eta udal gobernu” eremutik. 2018ko lehen hiruhilekotik, kontu emateko web plataforma bat jarri da herritar oren eskura, zeinak gobernu planean aurreikusitako ekintzen betetze-maila egiaztatzeko bide ematen baitu (www.vitoria-gasteiz.org/kontu-ematea). Erabilitako metodologiaren ebaluazioak helburuak, jarduerak eta bitartekoak gehiago zehazteko beharra iradokitzen du, baita planak gauzatzeko aurreikusitako denbora zehazteko ere. Ildo horretatik, OGP Euskadi ekimenak —Gasteiz ere horren barruan dago— hartu duen konpromisoe-tako bat da estandar bat (oinarrizkoa eta aurreratua) osatzea era adostuan, euskal erakundeek (erkidegoa, foru aldundiak eta udalak) agintaldirako konpromisoei buruzko informazioa argitaratu dezaten. Alderdi hauek barne hartzen dituen jarraipen metodo bat izatea da helburua: eboluzio txostenak; herritarrek erraz ulertzeko moduko dataset edo datu multzoak argitaratzea, jarraipen-adierazleen eta betetzeen bistaratzeeen inguru-koak, eta partaidetza eta komunikazio-plana, auditoretza sozial gisa.

Informazioa bi hizkuntzetan ematen da (bakarrik gaztelaniaz dauden artxibo erantsi batzuk salbu), eta genero-berdintasunaren esparrua errespetatzen da. Informazio eguneratua da, egiazkoa, ez oso zaila, eta irisgarritasun unibertsalaren estandarrak betetzen ditu, bai html bai pdf artxiboetan.

Bereziki aipatu beharra dugu 3. puntua, 2018ko martxoaz geroztik bideoakten sistema bat baitugu (<https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones?lang=es-ES>; horri esker, Udalbatzaren eta batzordeen bilkurak ikus daitezke bideoz (udalbatzak duela urte batzuk ikus daitezke streaming bidez), eta saioen bideoaktak ere eskura daitezke.

2.3.2 Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa.

19/2013 Legearen 7. artikulua eta 2/2016 Legearen 53. artikulua arabera

Eskatutako informazioa:

1. Publikoak izango dira udal-organismoek onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.



2. Toki-erakundeen ordenantza, erregelamendu eta aurrekontuen proiektuak, berandue-nera ere, hasierako onarpena eman eta berehala argitaratuko dira. Irizpenak eskatzea nahitaezkoa denean, aholku-organoei irizpenak eskatzen zaizkienean argitaratuko dira, eta horrek ez du eragingo, nahitaez, entzunaldi publikoa ematea.
3. Arau-testuak egiteko espedienteetako memoriak eta txostenak; bereziki uztailaren 3ko 1083/2009 Errege Dekretuak araututako arau-eraginaren analisiari buruzko txostena.
4. Indarreko legeria sektorialari jarraiki, izapidetze-aldian jendaurrean jarri behar diren dokumentuak.
5. Aholku-organoen txosten edo irizpenak ere publikoak izango dira.
6. Herritarren partaidetzako prozesuaren txostena eta ondorioak, halakorik baldin badago.
7. Hasita, martxan eta bukatuta dauden partaidetzako prozesuak. Eta bereziki, prozesu horiekin lotutako txostenak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikulua arabera

8. Urteko Araugintza Plana argitaratzen da, zeinak hurrengo urtean onesteko igorriko diren erregelamendu-ekimenak jasotzen baititu.

Bi artikuluko horiek aipatzen dituzten informazio-itemak udalaren webguneko **hainbat gunetan** agertzen dira eta Gardentasun-atariko hainbat lekutan daude horiekiko estekak. 2) eta 4) puntuak, esaterako, [udal araudiei buruzko orrialdean](http://www.vitoria-gasteiz.org/udal-araudiei-buruzko-orrialdean), eta aurrekontuaren zatia, aurrekontuei buruzko orrialdean (www.vitoria-gasteiz.org/aurrekontuak). 6. eta 7. puntuak espazio propioa dute herritarren partaidetzari buruzko webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/partehartzea). Gardentasun-ataritik bi espazio horiekiko estekak daude, "Herritarrekiko harremanak" atalean, eta aurrekontuari dagokion zatia [Ekonomia-, finantza- eta ondare-informazioa](#) atalean agertzen da.

Betetze-mailari dagokionez, aipatu beharra dugu —iazko txostenean bezala—, 1. atala ez dagoela inon islatuta webgunearen barruan, ez baita irizpide edo prozedurarik zehaztu identifikatu ahal izateko udal-organoei onartutako erabakien arteko zeinek dakarten zuzenbidearen interpretaziorik edo ondorio juridikorik. Orobat berraztertu behar da araudiaren eraginaren analisieren oroitidazkiak —3. atalean aipatutakoak— argitaratzeko aukera, baita araugintza plana ere —8. atalean aipatutakoa—. Araudiekin lotutako edukia erregularitasunez eguneratzen jarraitzen bada ere, ekintza proaktiboren bat bultzatu beharko litzateke indarrean dauden arauen ebaluazioa ezagutarazteko.

Araudiak, parte-hartze prozesuei lotutako dokumentuak eta abar elebitan daude, baina dekretu eta txosten asko (Osoko Bilkurako idazkaritzarenak, Kontu-hartzailetza orokorrarenak eta abar) soilik gaztelaniaz argitaratzen dira.

2.3.3 Ekonomiari, aurrekontuari eta estatistikari buruzko informazioa

19/2013 Legearen 8. artikulua eta 2/2016 Legearen 55. eta 57. artikulua arabera

Eskatutako informazioa:

1. Kontratu guztiak, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-batekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den, prozeduran parte hartu duten lizitatzaitzaileen kopurua, esleipendunaren nortasuna, eta



kontratuaren aldaketak eta luzapenak. Kontratuetan atzera egiteko eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratu egin beharko dira.

2. Kontratu txikiak hiru hilabetean behin argitaratuko dira, modu agregatuan, eta argitaratzen direnetik gutxienez 12 hilabetez emango da horien berri.
3. Era berean, argitaratuko dira datu estatistikoak sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez esleitutako kontratuak aurrekontuaren gainean hartzen duten ehunekoari buruz.
4. Ezarritako zigorrak, hala badagokio, kontratisten ez-betetzeengatik.
5. Sinatutako hitzarmenen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak eta adostutako betebeharrak ekonomikoak –halakorik baldin badago–.
6. Sinatutako kudeaketa-gomendioak ere argitaratuko dira, honako datu hauek adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta azpikontratazioak, berariaz aipatuz esleipendunak, esleipena egiteko jarraitutako prozedura eta esleipenaren zenbatekoa.
7. Emandako dirulaguntza eta laguntza publikoak: zenbatekoa, xedea edo helburua, eta onuradunak.
8. Aurrekontuak, aurrekontu-partida nagusiak deskribatuz eta exekuzio-egoerari buruzko informazio eguneratu eta ulergarria emanez. Argitara emango dira osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean, partida nagusiak deskribatuz eta informazio zehatza emanez beraien exekuzio-maila ezagutzeko eta ekitaldian zehar onetsitako aurrekontu-aldaketak jakiteko.
9. Aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuak betetzeari buruzko informazioa.
10. Argitaratu beharreko urteko kontuak, eta kanpo-kontrolako organoek horiei buruz egiten dituzten kontu-auditorien eta fiskalizazioen txostenak.
11. Honen aplikazio-eremuko entitateetako goi-kargu eta arduradun nagusiek jasotzen dituzten urteko ordainsariak. Halaber, kargua uztean jasotako kalte-ordainak ere argitaratuko dira, jaso badituzte.
12. Bateragarritasuna baimentzeko edo aitortzeko ebazpenak, langile publikoei eragiten dietenak, eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguek edo autonomia-erkidegoko edo tokiko araudien arabera horien pareko direnek kargua utzitakoan jarduera pribatuan jarduteko baimentzen dituzten ebazpenak.
13. Tokiko ordezkarien ondasun eta jardueren urteko aitorpenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusitakoaren arabera.
14. Beren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezko estatistika-informazioa, administrazio eskudunak xedatutakoaren arabera.
15. Hornitzaileen ordainketaren arloko berankortasunaren gaineko legeria betetzeko epeak.
16. Ondareko ondasun higiezinaren zerrenda, hala bere jabetzakoak direnena nola haien gaineko eskubide errealeen bat dutenena, eta hala badagokio, zein erakunderi laga zaizkion.



Aurreko bi urteetan jorrotutako lan-ildoari jarraituz, kontratuen zerrendak berriro erabil daitezkeen formatuetan sartu dira Open Data atarian (<https://www.vitoria-gasteiz.org/opendata>¹); dena dela, urteko guztizko kopuruak ematen jarraitzen da pdf agirietan, Gardentasun-atariko [Kontratu, hornitzaile, emakida eta hitzarmenen estatistika eta zerrendak](#) atalean. 2018ko martxoaren 9an Euskadiko Kontratazio Publikoaren barruko kontratatzailearen profilean sartzeak kontratazioari buruzko estatistika eta datuen sorrera eta argitalpenaren kudeaketa aldarazi du, eta atzerapenak ekarri ditu ekitaldian, baina horietako gehienak 2019 hasieran konpondu dira. Hori dela kausa, 3. atalean (datu estatistikoak, sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuaren gainean) eman beharreko informazioa oraindik eguneratu gabe dago, baina Ogasun Saila eta n Gardentasunaren eta Edukien Atala horretan ari ziren txostena egin den ulean.

Halaber, ekonomia- eta finantza-egoerari buruzko **atala hiru zatitan banatzen da**: aurrekontuei buruzko informazioa, kontratazio eta ondasunari buruzko informazioa eta kontu-emateak; publizitate aktiboko betebeharrak betetzen dituzten hainbat lekutarako estekak dituzte eta erreferentziatzeko bi legeek adierazten dituzten gutxieneko datuei gaineratutako datuak jasotzen dituzte. Alkatearen agendarekin lotutako gastuen edota zuzendaritza-taldearen ordezkartza-gastuen kasua da hori.

Aurrekontuei buruzko informazioa

- [Udal aurrekontuak: orri nagusia](#)
- [Egungo udal aurrekontuak](#)
- [Ekonomia- eta aurrekontu- adierazleak](#)
- [Aurrekontu-egonkortasuna](#)
- [Indarrean dauden ordenantza fiskalak](#)
- [Tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuen azterketak](#)
- [Zergak ordaintzeko egutegia](#)

Kontratazio eta ondasunari buruzko informazioa

- [Kontratazioa: motak eta prozedura](#)
- [Kontratatzailearen profila](#)
- [Kontratuen historikoaren kontsulta](#)
- [Kontratazio Mahaia: funtzionamendua, egutegia eta aktak](#)
- [Kontratu eta hornitzaileei buruzko informazioa: estatistikak eta zerrendak](#)

¹Datu irekien atariak hazten jarraitzen du: 2018. urtearen amaierarako 140 datu-multzo eta 396 artxibo zeuden argitaratuta. Gardentasunaren eta Edukien Atalak datuak askatzeko plan bat lantzeari ekin nahi dio 2019an, berrerabiltzearen politika sailataraz ere hedatzeko; OGP Euskadi ekimenaren barruko konpromisoetako batean ateratzen diren ondorioak erabiliko dira horretarako, Gasteizek horretan parte hartzen baitu. Informazio gehiago: www.ogp.euskadi.eus.



- [Hitzarmen, lagapen eta kudeatzeko gomendioei buruzko informazioa](#)
- [Udal ondasunen inbentarioa](#)
- *Kontu ematea*
- [Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Gasteizko Udalarri buruz egindako txostenak](#)
- [Aparteko diru-kontaketa korporazio aldaketa dela eta, 2015eko ekainaren 12ko dataz](#)
- [Alkatearen erakunde-jardueratik eratorritako gastuak](#)
- [Alkatearen, gobernu-taldearen eta zuzendarien ordezkari eta bidaiari gastuak](#)
- [Dirulaguntza eta laguntza publikoak \(jasoak eta emandakoak\)](#)
- [Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia](#)
- [Aurrekontuaren gauzatze-egoera \(open data\)](#)

Txosten hau egiteko orduan, ez dago **2018ko aurrekontuari** erreferentzia egiten dion daturik, prozedura eta epe arrazoiak direla kausa. Horixe gertatzen da ekonomia eta finantza adierazleekin. Euskadiko Kontratazio Publikoaren barruko kontratatzailearen profilean sartzeak, aldiz, kontratuen **atzera edo uko egiteak** zuzenean eskuratzea ahalbidetu du. Orobat, kontratistei ezarritako **zigor eta isunei** buruzko atala sortu da [Kontratuen estatistika eta zerrendak](#) orrian (4. itema).

Kontu Orokorra onestearekin batera, **inbentarioa** berrikusi beharko litzateke, txosten hau egiteko unean **2016ko datuak** jasotzen baititu oraindik.

Aurreko ekitaldian jada antzemandako gabeziak batzuek irauten dute, 5. eta 6. alderdiekin lotuta (hitzarmenak eta kudeatzeko gomendioak, hurrenez hurren).

- Betebeharrek diotenez, **sinatutako hitzarmen eta kudeatzeko mandatuen zerrenda** argitaratu beharko litzateke, baina **argitaratutakoak baino xehetasun gehiago** eman beharko lirateke. Izan ere, zerrenda laburrak argitaratzen dira, izenburuak gaztelaniaz bakarrik agertzen direlarik, eta hitzarmen edo kudeaketa gomendioen **testu osoak** erantsi beharko lirateke (hirigintza hitzarmenetan salbu).
- 14. itema —"beren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratze beharrezko estatistika-informazioa"— garatzen ari da, **udalaren zerbitzuen katalogoa** lantzeko eta webgunean eskuragarri jartzeko proiektuaren bidez. Lehen fasea —informazioa bildu eta sistematizatzea— dagoeneko bukatu da, baina Gardentasunaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua eta Informazioaren Teknologien Saila katalogo horren euskarri izango den aplikazioa lantzen ari dira, argitaratu ahal izateko.

Alor horretan **izan da hobekuntzarik euskararen erabilerari buruzko indarreko xedapenak betetzeari eta datuak berrerabiltzeari dagokienez**. Izan ere, txosten honetan aztergai dugun ekitaldian hasi da aurrekontuko gastu eta diru-sarreraren dokumentuak datu irekietan, bi hizkuntzetan, ods formatuan. Gainera, aurrekusi baino beranduago egin bada ere, **dagoeneko argitaratu eta publiko orokorraren eskura jarri da** <http://noradoaznirezergak.vitoria-gasteiz.org> webgunea, **aurrekontuari buruzko informazioa formatu grafikoan eta herritarrentzako ikuspegitik eskaintzen duen ataria**, zeinak aukera ematen baitu sistemarekin elkarreragiteko, Gasteizko finantza publikoak nola kudeatzen diren eta herritarren zergen bidez ematen duten dirua nola baliatzen den ulertzeko. Hartara, aurrekontuei buruzko informazioan baliabide grafi-



koak erabiltzeko betekizuna betetzen da, datu ekonomikoak erraz aurkezten dituen nabigazio errazeko plataforma baten bidez —zeina beste erakunde askok baliatzen baitute—.

2.3.4 Langileei buruzko informazioa

2/2016 Legearen 56. artikulua araberaz

Eskatutako informazioa:

1. Publiko egingo dira enplegu publikoaren eskaintzak, zenbateraino bete diren, eta funtzionario eta lan-kontratupeko langileentzako hautaketa-prozesuak —deialdiak, eta izendapenera arteko edo kontratua sinatu arteko egintza guzti-guztiak barne—.
2. Toki-administrazioek edo beste erakunde mota batzuek emandako ikastaro eta prestakuntza-programak.
3. Sindikatu-ordezkaritzako organoak osatzen dituzten kideak eta horretarako liberatuta dauden pertsonen kopurua, berariaz aipatu beharko delarik zer ordu-reditu duten.
4. Lanpostuen zerrendek taula sinoptiko bat jaso beharko dute, non, kategoriaren arabera ordainsari indibidualizatua jartzeaz gainera, antolamendu-tresna horren elementu garrantzitsuenak laburtuko diren.

Publizitate aktiboko betebeharrak, langileei dagokienez, administrazio-antolakuntza ataleko **es-
teken bidez betetzen** dira, baita udalaren webguneko beste gune batzuetan jarritako estekekin ere (adibidez, www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak edo [Udalaren enplegu-eskaintza](#) atala, Tramiteak eta udal gobernu fitxan). Aurten LEPrako prozesua abian jarri delarik, eskaintzak argitaratu eta horien jarraipena egin da; horretarako, Herritarren postontzian [elkarrizketa-hariak](#) sortu dira deialdi bakoitzeko, zalantzak argitzeko txat gisa funtzionatzen dutenak. [Udal plantillari](#) buruzko datuak ere ematen dira [Lanpostuen Zerrenda](#) eta [soldata-
taulak](#) barne), baita eskatutako puntu guztiak eta udal langileentzako [prestakuntzako ikastaro
eta programen datuak](#), formatu irekian.

2.3.5 Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa

2/2016 Legearen 54. artikulua araberaz

Eskatutako informazioa:

1. Toki-erakundeek modu argi, irisgarri, ulergarri eta errazean zabalduko dute zer sartzen den herritarrei eskaintzen dieten zerbitzu-zorroan, eta berariaz zehaztuko dute zer ondasun eta prestazio eskaintzen dituen toki-erakundeak eta horien kostua zenbatekoa den, bai osotara eta bai pertsona bakoitzeko.
2. Era berean, publiko egingo dituzte zerbitzu-kartak edo pareko dokumentuak, eta, hala-korik badute, zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko edo egiaztatzeko prozesuak.
3. Eskaintzen den zerbitzu bakoitzari buruzko ordutegia eta ordaindu beharreko prezio publikoak edo udal-tasak zehaztu beharko dira.
4. Gainera, informazio agregatua, laburra eta argia eskainiko da honako zerbitzu hauen gainean:
 - Mantentzea eta obrak; segurtasun publikoa eta babes zibila; hondakinen bilketa eta tratamendua; uraren kudeaketa; kale-garbiketa; jarduera ekonomikoak eta lizent-



ziak; hirigintza eta ingurumena; kultura eta kirola; gizarte-zerbitzuak eta gizon eta emakumeen berdintasuna.

54. artikulua jasotzen dituen publizitate aktiboko betebeharrak udalaren webguneko eduki ezberdin eta anitz askorekin betetzen dira, esaterako antzokien webgunea (www.principalantzokia.org), udaltzaingoaren gunea (www.vitoria-gasteiz.org/udaltzaingoa) edo [ingurumena](#), besteak beste. Gardentasun-atariak, aipatu dugun bezala, [Herritarrekiko harremanak](#) izeneko atala du, non hainbat gairi buruzko informazioa ematen baita: herritarren parte-hartze eta arreta, ingurumen-politikak, mugikortasuna, hirigintza, obrak... Era berean, [udalaren zerbitzuen eta ekipamenduen katalogo](#) oinarritzkoa jasotzen da udalaren webgunean, eta kostuei buruzko informazioa (prezio publikoak kalkulatzeko balio duten [kostuen azterketak](#)). **Zerbitzuen katalogoa zehaztu eta martxan jartzeko proiektua** ere bada, baina **oraindik ez da amaitu**.

Alderdi horiei buruzko xehetasun batzuk:

- [Zerbitzuen kartei](#) buruzko informazioa ez dago eguneratuta. Oraindik **beharrezko izaten jarraitzen du Udalaren kalitate politikari buruzko informazio eguneratuagoak**.
- 4. itemari erantzuteko, gai horiei buruzko hainbat webgune daude: [mantentzea eta obrak](#); [segurtasun publikoa eta babes zibila](#); [hondakinen bilketa eta tratamendua](#); [uraren kudeaketa](#); [kale-garbiketa](#); [jarduera ekonomikoak](#) eta [lizentziak](#); [hirigintza](#) eta [ingurumena](#); [kultura](#) eta [kirolak](#); [gizarte zerbitzuak](#) eta [gizon eta emakumeen arteko berdintasuna](#).

Kasu honetan, legeak xedatzen dituen publizitate aktiboko betebeharrari erantzungo liekeen **informazioa** ez dago leku bakar batean bilduta espresuki, udalaren webgunean **sakabanatuta** baizik. Aipatu 54. artikulua xedatzen dituen betekizunak betetzen dira, baina 4. puntuko informazioa ez da nahi bezain agregatu, zehatz eta argia (zerbitzuen katalogoa argitaratzean hobetu egingo dela jotzen da).

Kasu guztietan informazioa bi hizkuntza ofizialetan dago (kostuen azterketak eratzten dituzten artxibo erantsiak salbu), irisgarritasun-betekizunak betetzen dira eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko udal politika errespetatzen da.

2.3.6 Beste zenbait alderdi

2/2016 Legearen 58. eta 61. artikuluen arabera

Eskatutako informazioa bi artikuluen arabera:

1. Herritarrentzako interesekoa den informazioa ere argitaratuko da, ahaztu gabe betiere dagokion arautegi espezifikoak ezarritako informazio-betebeharrak.
2. Ezagutzera emango dira herritarren arretarako eta partaidetzarako zerbitzuak eskaintzeko dauden kanalak.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek gardentasunaren atari bat sortu ahal izango dute beren egoitza elektronikoetan edo erakunde-webgunetan, herritarrek eta erakundeek titulu honetan ezarritako gardentasun-betebeharren ondorioz publikoa den informazio oro eta toki-erakundeak eman nahi duen informazio guztia eskuratzea errazteko (nahitaezkoa da 20.000 biztanletik gorako toki-erakundeetan).
4. Espazio bat prestatu beharko da herritarrek proposamenak eta iradokizunak egin ditzaten, bai eskatutako informazioari buruz, bai beren eskueran jarritako informazioari eta



erabilitako formatu, programa edo lengoaia informatikoei buruz. Espazio horrek, era berean, aukera eman ahal izango du datuen irekitasunari eta berrerabilerari buruzko aplikazio informatikoen garapenean parte hartzeko.

5. Toki-erakundearen beraren erregelamendu bidez, gainera, informazioa herritarren artean zabaltzea eta herritarren partaidetza bultzatuko duten kanal anitzeko sistemak ezarri ahal izango dira.

Kasu honetan, Gasteizko Udalak gardentasun-atari bat dauka eta herritarrentzako interes orokorrekoak diren beste informazio batzuk argitaratzen ditu, ataritik edota webgune orokorretik eskura daitezkeenak. [Arretarako bideei](#) eta [herritarren partaidetzari](#) buruzko informazioa ematen da, eta informazio horri buruz herritarrek udalarekin harremanak izateko hainbat gune daude: [Herritarren postontzia](#) bera edo [open data atariko](#) atal berezi bat ("datuen irekiera eta berrerabilerari buruzko informatika-aplikazioen garapenean parte hartzea gaitzea"). 2019an herritarren postontzia berritzeko proiektua dago, erabilgarritasuna hobetu eta herritarren partaidetzarako tresna gisa dituen funtzionalitateak handitzearen.

2/2016 Legearen 49. artikulua arabera

Publizitate aktiboko arauak aplikatu beharko dituzte, halaber, erakunde pribatuek, baldin eta 100.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte, edo, laguntza edo dirulaguntza publikoek gutxienez 5.000 eurora iritsirik, haien urteko diru-sarreraren % 43 gutxienez egiten badute.

Entitate horiek beren web-orrietan argitaratu behar dituzte datuak.

Nolanahi ere, irabazi asmorik gabeko erakundeak direnean, gizarte-, kultura-, hizkuntza- ingurumen-intereseko helburuak baino ez dituztenean, eta 50.000 eurotik beherako aurrekontua dutenean, ekarpen edo laguntza gehienek iturburu diren toki-erakundeetako bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte betebeharrak betetzeko.

Horrekin lotuta, Gasteizko Udalak tresna digital eskuragarri eta doakoa sortu du 2018an, Gasteizko elkarte-mugimenduko entitate pribatuek leku bat izan dezaten gardentasun legeak dakartzan betebeharrak betetzeko. Sareguneri esleitutako kontratu baten bidez garatu da espazio hori, eta 2019ko apirilaren 2an jarri da martxan.

<http://elkarateak.info/> atariaren funtzionamendua autonomoa da: alta ematea eskatu ondoren, erakundeei erabiltzaile/pasahitz bat ematen zaie, atarian sartu eta elkartearen fitxan egoki irizten dioten guztia argitaratu dezaten; gardentasunarekin lotutako informaziorako atal bat ere bada.

Elkarte-mugimenduaren atarian gardentasunari buruzko atala irekitzearekin batera, Gasteizko Udalak Gardentasun Gida aurkeztu die erakunde pribatuei, publizitate aktiboaren alorrean dituzten betebeharren erreferentziazko esparruaren berri emateko.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

2.4 Udal erakunde autonomo eta enpresak

Udalaren erakunde autonomoek ([Ingurugiro Gaietarako Ikastegia](#), [Luis Aranburu Musika Eskola](#) eta [José Uruñuela Dantza Kontserbatorioa](#)) atal propioa dute Gardentasun-atarian; atal hori, era berean, udalaren webguneko guneei lotuta dago. Gardentasun-atal horretan ematen den informazioak webgune orokorreko eskema berari jarraitzen dio, baina hainbat informazio-item orokorrean daude sartuta (aurrekontu-informazioa edo goi-karguen ordainsariei buruzkoa, adibidez).

Erakunde autonomoen kasuan, informazioa eguneratuta aurkezten da oro har, eta formatu elebidunetan edo euskarazko bertsioa duela. Aurrekontuari estuki lotutako alderdiei dagokienez, bai Dantza Kontserbatorioak bai Musika Eskolak 2018. urteari buruzko zenbait datu ematen dituzte (hornitzaileak, ordainsariak, estatistika batzuk...); IGIk, ordea, hornitzaileen zerrendak eguneratu gabe ditu.

Udal enpresen kasuan ([TUVISA](#), [AMVISA](#) eta [21 Zabalgunea](#)), eguneratze-maila erakunde autonomoenaren antzekoa da, aurrekontuen eta ekonomia eta finantzen alorretako gorabeheraren bat kenduta (AMVISAk, esaterako, 2017ko aurrekontuak ematen ditu).




Informazio publikoa eskuratzea

3.1 Lege eta arau prozedura

19/2013 Legearen III. Kapitulua **informazio publikoa eskuratzeko eskubidea** arautzen du, hots, **gardentasunaren beste dimentsioa, “gardentasun pasiboa” deitu ohi zaiona** “gardentasun aktiboari” kontrajarriz, zeina txosten honetan aipatutako publizitate aktiboko betebeharren arabera arautzen den.

19/2013 Legean eskubide hori baliatzeari buruz ezarritako erregulazioak —2/2016 Legeak informazio publikoa eskuratzeari buruzko printzipioei eta erreklamazio-organoari buruz III. kapituluan ezarritakoarekin sendotuta— ekarri zuen Gasteizko Udalaren barruan hori gauzatzeko **administrazio-prozedura bat abian jartzea**.

Horren haritik, [Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea](#) izeneko gune bat egokitu zen gardentasun-atarian ([udalaren egoitza elektronikotik](#), herritarren partaidetzako izapideen ataletik eta udalaren webguneko “tramiteak eta tokiko gobernua” zabalgarritik ere eskuragarri). Gunean honakoak jasotzen dira: prozeduraren lege-esparrua, eskabideak bideratzeaz arduratzen den atala, jarraitu beharreko prozedura, eskabidea ukatuz gero gero nola erreklamatu behar den..... Udalak [izapidea abian jarri zuen](#), zeina aurrez aurre edo telematikoki (egoitza elektronikoren bidez) egin baitaiteke, eta jasotako eskabideen estatistikak ematen hasi zen 2016an. Informazio-eskabideen kopurua mantendu egin da: 2017an 32 izan ziren; 2018an, berriz, 35. Goranzko joerak jarraitzen du, gutxi bada ere. Jasotako eskabideak/erantzunak (edozein delarik) ratioa 35/33 da, hots, % 94.





Urtez urteko eboluzioan egiaztatu dezakegu informazio publikorako sarbidea eskatzeko izapidea abian jarri zenetik horien kopurua haziz joan dela.

3.2 Estatistikak

Gardentasun-atariak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeari buruz egiten diren [estatistikak](#) biltzen ditu. 2/2016 Legeak xedatzen duenez, honako alderdiei buruzko informazioa eman behar da: zenbat eskaera aurkeztu diren; zenbat eskaera ebatzi diren; batez beste zein epetan ebatzi diren; zenbat eskaera onetsi diren oso-osorik, zenbat zati batean, eta zenbat beste pertsona bat aurka egonda; zenbat eskaera ezetsi diren, eta zenbat ez diren onartu; zati batean edo beste pertsona bat aurka egonda onesteko arrazoiak, ezestekoak, eta ez onartzekoak; maizen eskatutako informazioa; eta eskatzailearen profila (adin-tartea, sexua, eta hizkuntza).

Udalak bi hilean behineko maiztasunarekin **eskaintzen dituen estatistikak bete egiten ditu 2/2016 Legeak ezarritako baldintzak**, eskabideak kudeatzeko erabiltzen den barne aplikazioan **estatistikak sortzeko tresna jarri baitzen abian 2018ko maiatzean**. 2018ko datuetako batzuetan oraindik bada desbideratzerik, urtarriletik apirilera bitarteko datuak ezin izan direlako berdin ustiatu. 2019an, datuak homogeenagoak izango dira.

2018. urtea

- Jasotako eskabideak: 35
- Eskabideak, sarbidearen arabera: aurrez aurre, 24 / posta arrunta, 3 / online, 8
- Eskatzaileen sexua: emakumeak, 16 / gizonak, 15 / erakundeak, 3
- Eskabideen hizkuntza: gaztelania, 34 / euskara, 1.

Eskabideekiko erantzun-maila	
Emandako erantzunak	33 (% 94)
Epe barruko erantzunak:	27
Erantzuteko bidea:	Posta arrunta: 6 / Posta elektronikoa: 26 Beste: 1
Onetsitako eskabideak	13
Zati batean onetsitako eskabideak	2
Ezetsitako eskabideak eta arrazoa	4 Arrazoa: izapidearen helburua ez izatea eta 19/2013 Legearen 1. xedapen gehigarria.
Gaien laburpena	Informazioa eta herritarrentzako arreta, ekonomia-sustapena, ingurumena eta iraunkortasuna, ogasuna, funtzio publikoa, osasuna eta kontsumoa, hiri-gintza, espazio publikoa.



Gardentasuna atarira egindako bisitak

Txosten honetan dagoeneko adierazi dugu udalaren webgunearen ezaugarri nagusietako bat zein den. Gasteizko Udalak webgune bakarra dauka, domeinu bakarrarekin (www.vitoria-gasteiz.org). Bertan elkarren artean gaika taldekatutako milaka web-orri eta gai horien arabera ko hainbat "atari" edo sarrera berezi daude, eta url helbide laburtuen inguruan konfiguratzen dira (www.vitoria-gasteiz.org/kultura o www.vitoria-gasteiz.org/opendata, adibidez).

Domeinu bakarreko filosofia hori, helbide nagusi bakarrekoa alegia, ona da herritarrentzat, udal webgune osoak "gardentasuna" dakarrela jotzen baitugu. Hala ere, filosofia horrek **bal-dintzatu egiten du webguneko edukietarako sarreraren azterketa**, Gardentasun-atariaren "zati" gisa biltzen diren orriak, berez, webgunearen zati direlako. Gardentasun-ataritik lotura duten udalaren webguneko edukien kasuan, aldi jakin batean zenbat sarrera edo bisita izan dituzten jakin dezakegu, baina ezin dugu sarrera horien trazabilitatea zehatz ziurtatu, bisita batzuk Atariko loturetatik iritsiko direlako, beste batzuk webguneko beste gune batzuetatik eta beste batzuk kanpoko bilatzaile edo web-orrietatik.

Hori esanda, **Gardentasun-atariaren web-orri nagusietara** (orri nagusia eta gaien arabera orriak) **egindako bisiten datuak** eskaintzen dira, eta hura martxan jartzearekin batera ad-hoc sortu zirenak zerrendatzen dira, webguneko beste atal batzuetatik esteka duten arren uste baitugu lehentasunez bertatik kontsultatzen direla (udal langileak, goi-karguen ordainsariak, ondatsunen aitorenak, kontratuen estatistikak, eta abar).

Orri nagusiak	Bisita kopurua	Ikusitako orri bakarrak	Zeharka ikusitako ehuneko
Gardentasun-ataria (hasiera-orria)	9.169	6.584	% 25,64
Udalaren web-orria	9.101.155	6.404.936	% 51,00
<i>Elkarren arteko lotura</i>	<i>Guztiaren % 0,10</i>	<i>Guztiaren % 0,10</i>	<i>42a, % 15 gutxiago</i>

Gardentasun-atariaren orrialde nagusiar egindako bisitak bisita guztien % 0,1 inguru dira, lehen bezala. Cookie-ak kudeatzearekin lotuta egindako aldaketak direla medio, Google Analytics-ek ez zuen bisitei buruzko daturik bildu uztailearen 7tik abuztuaren 14ra bitartean. Ia bi hilabeteko datuak ez izateak alborapena sortzen du ezinbestean, baina hala ere badirudi atariaren sarreraren kopuruak portzentaje erlazio berari eusten diola udalaren webgunearen kopuru oroko-



rrarekin (datu-bilketaren arazoa orokorra izan zen www.vitoria-gasteiz.org webgune osoan), et bisita guztien % 0,1 ingurukoa da.

Gaikako orriak	Bisita kopurua	Ikusitako orri bakarrak	Zeharka ikusitakoen ehunekoa
Antolakuntza politikoa	6.074	3.520	% 16,84%
Administrazio-antolakuntza	2.325	1.285	% 26,13%
Ekonomiarekin eta finantzazioarekin lotutako informazioa	1.847	1.195	% 24,32
Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak	859	605	% 70,37
<i>Udalaren web-orria</i>	<i>9.101.155</i>	<i>6.404.936</i>	<i>% 51,00</i>

Eduki-orriak	Bisita kopurua	Ikusitako orri bakarrak	Zeharka ikusitakoen ehunekoa
Goi-karguen ordainsariak	1.836	1.377	% 38,24%
Udal langileak	5.037	3.494	% 44,97%
Jardueren eta ondasunen erregistroa	279	185	% 37,21%
Gai-zerrenda eta akten kontsultak (organo espezifiko bakoitza kontsultatzeko sarrera ematen duen orria)	1.055	612	% 20,33%
Retransmisiones del pleno en streaming	2.970	2.100	% 58,40%
Kontratuen, dirulaguntzen eta abarren estatistikak eta zerrendak*	751	372	% 50,91%
Legealdiko plan estrategikoa	1.181	751	% 30,70
Kontu-ematea (home plataforma)	2.663	2.066	% 58,94



Ondorioak

Azterketa kuantitatibo hutsa eginez gero, alegia, publizitate aktiboaren betebeharrak ezagutarazi beharreko "itemtzat" jotzen baditugu eta zein argiratu den eta zein ez ikusten badugu, **Gas-teizko Udalak legezko eskakizunak % 94an betetzen** dituela erakusten digu "argazkiak". 9/2013 Legeak eta 2/2016 Legeak argitaratu behar dugula agintzen duten guztia argitaratzen dugu, hiru datu izan ezik (informazio juridiko-normatiboaren alorrekoak hirurak):

- Udal-organoek onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.
- Arau-testuak egiteko espedienteetako memoriak eta txostenak; bereziki arau-eraginaren analisiari buruzko txostena, uztailaren 3ko 1083/2009 Errege Dekretuak araututakoa.
- Urteko Araugintza Plana, zeinak hurrengo urtean onesteko igorriko diren erregelamendu-ekimenak jasoko baititu².

Bereizi ditugun 52 itemetako batzuk ez zeuden eguneratuta txosten hau ixteko unean (kontra-tuei buruzko estatistikaren bat, aurrekontua ixtearekin lotutakoak, inbentarioa...), baina Udalak zabaldu egiten du informazio hori, eta eguneratuta ez egotea zirkunstantziala da (epe arrazoiak, araudi-aldaketak, aldaketa teknologikoak... direla eta). Nolanahi ere, zirkunstantzia horiek konpontzeko bidean dira.

Beraz, esan dezakegu Udalaren jarduketa publizitate aktiboaren alorrean bikaintzat jo daitekeela, hobetzekorik baden arren, item batzuetan ematen dugun informazioak ez dituelako betekizun guztiak betetzen, edo hobeto egituratuta egon litekeelako. Esaterako:

- Alkatearen eta zinegotzien dedikazio erregimena (erakundeari buruzko informazioa ataleko 5. itema) artxibo erantsi gisa xls formatuan argitaratzen den soldata-taularekin lotuta dago, eta ezin da orrialdearen html-an irakurri (horrela balitz, bilaketaren emaitza litzateke). Argitalpenean automatismoa ahalbidetzen duen sistemarik ezean, edukia html formatuan lantzea aztertuko da.
- Ez ditugu ez "zuzendaritza lanpostuetarako eskatzen den profila" ez "horiek betetzen dituzten pertsonen ibilbide profesionala" argitaratzen (atal bereko 6. itema). Informazio hori eskatzea aztertuko da, hurrengo agintaldia hastearekin bat argitaratzeko.
- Urteko eta hainbat urteko plan eta programetan, ez ditugu zehazten "jarduerak, bitarte-koak eta lortzeko aurreikusitako denbora" (aipatutako ataleko 10. itema).

² Aipatu dugun bezala, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen du betekizun hori.



Maila kualitatiboan, edukiren bat ez eguneratzeak balantze globala zertxobait iluntzen duen arren, Gasteizko Udalak aurrerapauso garrantzitsuak eman ditu 2018an. Nabarmendu beharreko zenbait proiektu izan dira gobernu irekiaren alorrean oro har eta publizitate aktiboaren alorrean bereziki, zeinak dagoeneko aipatu baititugu txostenean:

- **2015-2019 Gobernu Planaren kontu emateko plataforma** (www.vitoria-gasteiz.org/kontu-ematea), zeinean egiaztatu ahal baita gobernu-taldeak amaitzearen agintaldi honetarako hartutako konpromisoen aurrerabide- eta betetze-maila. 2018ko martxoaren 13an argitaratu zen, eta aldian behin eguneratzen da.
- **Udal zerbitzuen katalogoa** lantzeko lehen fasea, udal osoaren barruan egindakoa, erakundeak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen ezaugarriak zehazteko. Proiektu horri esker, eta garatzen ari den aplikazio informatiko baten bitartez, katalogoa argitaratu ahalko da, eta bigarren fase batean, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak antolakundearen barrukoekin erlazionatu, eta ebaluazioa erakutsi.
- Abian jartzea <http://noradoaznirezergak.vitoria-gasteiz.org>. **Aurrekontu grafiko**en plataforma hori aurrekontuko dokumentuak open data atarian formatu irekian argitaratzeari gehitu zitzaion, 2019ko martxoaren 4an.
- Gasteizko Udalaren **kode etikoa**, udal politikoen eta langileen partaidetzaz egindako lanaren emaitza, zeina 2018ko ekainaren 7an aurkeztu baitzen.
- Urratsak egin dira komunikazio argiaren alorrean, administrazioan irakurketa eta hizkeraren errazaren irizpideak kontuan hartzearen, eta web edukiak berrikusi eta antolatzearen asmoa dugu, nabigazioa errazteko. Edukiak eta horien egitura sakon aztertzea ahalbidetuko du horrek.

Nolanahi ere, **Gardentasun Plan Operatibo**aren arabera, bada oraindik ere ekin behar zaion ildo bat, kanpo- eta barne-komunikazioarena, zeinen helburua baita —Udalaren jardura eta errealitatea kanpotik nola antzematen diren— horren gainean eragitea, bai komunikazio pasiboaren ikuspegitik, bai komunikazio aktiboaren ikuspegitik, irudi homogeneoa emate aldera, Udalaren balioei erantzuneko diena, herritarrekiko elkarrikeria dela medio. Eta, bestetik, Udalaren barruan informazioa nola zabaltzen den finkatzea —nola zirkulatzen duen sail bakoitzean eta sail eta zerbitzuen artean, nola kudeatzen den eta zein bitarteko eta baliabideren bitartez—, hartara gardentasunaren kultura txertatzeko organizazioaren egunerokoan eta hura osatzen dugun pertsonon baitan.

Datu irekien atariari dagokionez, 2018. urtearen amaierarako 140 datu-multzo eta 396 artxiboz argitaratuta. Dena dela, aipatu dugun legez, datuak askatzeko plan bat lantzeko ekin behar zaio, berrerabiltzearen politika sailerara ere hedatzeko. Horretan lagungarri izango zaigu [OGP Euskadi](#) ekimenaren barruko konpromisoetako batean ateratzen diren ondorioak, herritarrek eta gizarte zibilak gehien eskatzen dituzten datu-multzoak identifikatzearekin lotuta baitago.

Txostenak aztergai duen beste eremua —**gardentasun pasiboa** (informazio publikorako sarbiderako eskabideak)— dela eta, 2018ko aldaketarik handiena **eskabideen barne kudeaketarako tresna amaitu izana da**, horrek estatistikak egitea erraztuko baitu, eta eskubide horri nola erantzuten zaion zehatzago aztertzea ahalbidetuko. **Eskabideen kopurua zertxobait hazi da**, baina ezin daiteke esan tramitea oro har ezaguna denik; era berean, ez dago alderdiren bat proaktiboki ezagutaraztera bultzatzen duten eskaera errepikaturik. Egia da, ordea, **obra eta obra dossierrei buruzko informazioa** dela **eskatuenetakoa**; beraz, obrei buruzko informazio osoa, ulergarriagoa eta irisgarriagoa eman beharko litzatekeela pentsarazten du horrek.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Azaldu dugun **Ikuspegi bikoitza**, kuantitatibo eta kualitatiboa, **txanpon beraren bi aldeak dira**: antolakundeak gardentasunaren alorrean **egindako lana, apustua eta lankidetz**a. Lan hori emaitzak ematen ari da **kanpoko ebaluazioetan** (Gasteiz lehena da Dyntra gardentasun-indizean, baita ITAren azkenengo bi edizioetan). Lan honek, apustu honek, lan filosofia gisa sendotu behar du Udalean, eta 2016ko ekainean zehaztutako Gardentasun Plan Operatiboa osatu, alegia, Organizazioan **gardentasunaren benetako kultura** ezartzen laguntzeko beharrezko diren **aldakuntzei ekiteko** —planaren xedea— jarduera-ildo eta proiektuak.

Hori da jakinarazi beharreko guztia, Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 9an.

Gardentasunaren eta Edukien Atala
Herritarrentzako Arretaren eta Gardentasunaren Zerbitzua



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKIN GRAFIKOA: BETEBEHARREN BETETZE-MAILA

	GUZTIRA	BAI		EZ
			Egiteke dauden hobekuntzak	
Erakundearekin eta antolakuntzarekin lotutakoak	15	15	3	0
Garrantzi juridikoa duen informazioa	8	5	0	3
Ekonomiarekin eta finantzazioarekin lotutakoak	16	16	1	0
Langileei buruzko informazioa	4	4	0	0
Politika publikoei buruzko informazioa	4	4	1	0
Beste zenbait alderdi	5	5	0	0
GUZTIRA	52	49	5	3

ERAKUNDEAREKIN ETA ANTOLAKUNTZAREKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA

GARRANTZI JURIDIKOA DUEN INFORMAZIOA


EKONOMIAREKIN ETA FINANTZAZIOAREKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA

LANGILEEI BURUZKO INFORMAZIOA

POLITIKA PUBLIKOEI BURUZKO INFORMAZIOA

BESTE ZENBAIT ALDERDI

GUZTIRA



■ Betetzen dira ■ Ez dira betetzen